



PUBLIPOSTA
PUBLICORREO



DESGAITASUN FISIKO
DUTEN ETA **INDARKERIA**
MATXISTAREN BIKTIMA
DIREN EMAKUMEENTZAKO
ESKUBIDEEN GIDALIBURUA

ARABA

EGINAREN EGINEZ

Arabako desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA

AGADELPRISE

Gipuzkoako linfedema primario edo sekundarioak eta lipedemak erasandakoen elkarte

AGAER

Gaixotasun erreumatikoez erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonetikiko kristau senidetasuna

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

BIZKAIA

ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofi-koaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus erimatoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

APDISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtzikoko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ARNASA BIZKAIA

Euskal Herriko Fibrosis Kistikokoaren Elkarte

ASEBIER

Arantzako bifidoa eta hidrozealia gaixotasun arraroen euskadiko elkarte

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularen elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

BIZADELPRISE

Lifedema primario, sekundaioak eta Lipedema Eragindakoen Elkarte

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.



ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Fax: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org



BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Fax: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com



GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5 behea
Tel.: 943 31 67 70
Fax: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Inprimitzeko
erabilitako
materiala:



Iturri arduratsuetatik
datorren paper
partzialki
birziklatua

Aurkibidea

4

DESGAITASUN FISIKOA DUTEN ETA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ESKUBIDEEN GIDALIBURUA



5

Hirigintza eta etxebizitzarako topagunea

5

Mugikortasun jasangarrirako plana

6

Bilerak Eusko Jaurlaritzako sailekin

7

Mendekotasun-Legearen aldaketak

7

Osasun Ituna egiteko prozesuan parte hartzea
exijitzen dugu

ARABA

8

Dantza inklusiboa
Bizimodu
independentearen
europako eguna

9

Desgaitasuna duten
pertsonentzako
laguntzen deialdi
publikoa

Autonomiarako eta
ahalduntzerako
prestatuntza

10

Gutxieneko pen-
tsioak lanbidearteko
gutxieneko solda-
tarekin parekatzeko
legegintza-ekimena

Mugikortasun urriko
pertsonentzat
erreserbatutako
etxebizitzak

BIZKAIA

11

Kamilotarren
lokalaren lagapena

Bizkaian garraioaren
irigarritasunean
hobekuntzak
eskatzen ditugu

12

Osatek-en froga
diagnostikoak
egiteko baliabide
egokiak

2024ko jarduera
memoria

13

Enplegu duina eta
etxebizitza irigarria
eskatzen ditugu

Cocemfek Mamo-
grafo Inklusiboak
ekimena saritu du

GIPUZKOA

14

Elkarbidean 2025
programa

Desgaitasun fisikoa
duten emakumeen
aurkako genero-
indarkeriari buruzko
tailerrak

15

“Gainditu
gabeko erronkak
desgaitasunean”
jardunaldia

Erabakiz proiektua,
bizimodu
independentea
probatuz

16

Gipuzkoako kirol-
instalazioak

Ogasunak zenbait
zerga ikuskatzeko
egindako jarduketak

DESGAITASUN FISIKOA DUTEN ETA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ESKUBIDEEN GIDALIBURUA



Elkarteanetik, lanean ari gara desgaitasun fisikoa duten emakumeek eta neskek gizonen eskubide berberak izan eta balia ditzaten, hainbat faktoreren elkarketak eragiten dituen diskriminazio modu ugariak gaindituz.

Horretarako, besteak beste, kontuan hartzen ditugu desgaitasuna duten emakumeen errealtate berezia eta premiak indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen prebentzio-, laguntza- eta babes-politikan, emakumeek jasaten dituzten indarkeria-motak eta izan ditzaketen askotariko erasotzaileak kontuan hartuta.

Errealitate horren aurrean, "Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako eskubideen gidaliburua" egin dugu, egoera horretan dauden emakumeei eta prozesu horretan laguntzen dieten profesionalak informazioa emateko, funtsezkoa baita arreta egokia eta integrala emateko.

Gidaliburua funtsezko hamar jarduera-eremutan egituratzen da: gizarte-zerbitzuak; laguntza ekonomikoak; etxebizitza; hezkuntza; enplegua; bizimodu independenterako laguntza; zerbitzu juridikoak; arreta psikologikoak; larrialdietan eta sexu-indarkeriako kasuetan laguntzeko zerbitzuak; jarduera-eremu bakoitzean, alde batetik, sarrera labur bat dago, eta, ondoren, baliabideak daude jasota, zertan datzan, administrazio eskuduna zein den eta zer baldintza bete behar diren zehaztuta.

Ahalik eta emakume eta profesional gehienengana iristeko, Elkarteak komunikazio-kanpaina bat abiarazi du sare sozialetan, eta gidaliburua gure webgunean (www.elkartean.org) eta lurralde-erakundearen webguneetan ere argitaratu dugu.

HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZARAKO TOPAGUNEA

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea eratu du. Topagune hori *“Eusko Jaurlaritza, udal eta herri-tarrentzat etxebizitzaren arloko kontsulta- eta aholkularitza-organismo izateko eratzen da, Euskadin etxebizitzaren arloan adituaren partaidetza eta lankidetzak izango duen espazio egonkor bat izan dadin”*.

Organo aholku-emaile hori abenduaren 17ko 475/2024 Dekretuaren bidez ezarri zen, eta parte hartzeko gune egonkor gisa eratu da, etxebizitzaren arloan dauden erroinei erantzun dieten politika berritzaileak aztertzeko, adosteko eta proposatzeko.

Topagunearen lehen bilerak hiru lan-mahai eratzeke balio izan zuen:

- Lurzoruaren erregulazioa eta sinplifikazio burokratikoa.
- Eraikuntzaren sektorea modernizatzea.
- Lankidetzak publiko-pribatua sustatzea.

Elkarteanek kontsulta-organo horretan parte hartzen du, eta gure helburu nagusia da desgaitasun fisikoa duten pertsonen etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko duten eskubidea defendatzea eta sustatzea. Horretarako, etxebizitzaren esparruan irisgarritasun unibertsala sustatzeko beharra planteatu dugu, baita bizimodu independentearen eredia gauzatzeko hain garrantzitsua den eskubidea bermatzen lagunduko luketen hainbat neurri ere. Datozen hilabeteetan lanean jarraituko dugu, gaian inplikaturik dauden gainerako eragile publiko eta pribatuekin batera, desgaitasuna duten pertsonen etxebizitza bat eskuratzeko dituzten oztopoak gainditzeko, eta etxebizitzak irisgarritasun unibertsaleko beharrezko baldintzak bete ditzan.

MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA

Elkarteanen jakin genuen Euskadiko mugikortasun jasangarrirako planaren proiektua jendaurrean jarri zela, eta hura aztertu genuen, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko hobekuntza-proposamenak aurkezteko.

Ekarpen nagusiak honako hauek izan ziren:

- Irisgarritasunaren kontzeptua eta eskubide hori bermatzera bideratutako hobekuntzak zehatzago definitzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen ordezkartzen dituzten Hirugarren Sektore Sozialerako erakundeak Planean inplikaturik eragile gisa hartzea.
- Plana gauzatzeko epe zehatzak eta aurrerakontu-zuzkidura nahikoa ezartzearen garrantzia.

Aurkeztutako proposamenez gain, inplementazio eta jarraipen-prozesuan aktiboki laguntzen jarraituko dugu, gure aldarrikapenak txertatzeko eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak bermatzeko.

Elkartean-ek irisgarritasuna eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko proposamenak aurkeztu zituen Euskadiko Mugikortasun Iraunkorreko Planean.



BILERAK EUSKO JAURLARITZAKO SAILEKIN

Hauteskunde autonomikoak egin eta Eusko Jaurlaritza berria eratu ondoren, bileratxanda bat hasi dugu sailekin, desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta sustatzeko egiten dugun eragin politikoaren esparruan.

Hala, azken hilabeteetan bilerak egin ditugu arlo hauekin:

- Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa.
- Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.
- Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
- Segurtasuna.
- Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- Hezkuntza.

Sail bakoitzarekin, arlo bakoitzean desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideetan eta bizi-kalitatean eragina izan dezaketen gai garrantzitsuenak landu dira. Laburbilduz, honako erronka hauek aipa daitezke lege-gintzaldi honetan jorratu beharreko erronka nagusi gisa:

- **Bizimodu independentearen** eredia bultzatzea, askatasunez nola, non eta norekin bizi nahi dugun aukeratu ahal izatea bermatzeko, horretarako behar diren laguntzak emanez (laguntza pertsonala, etxebizitza irisgarria, diru-sarrera duinak, laguntza-produktuak, irisgarritasun unibertsala, etab.).
- Desgaitasuna duten pertsonen **etxebizitza duina, egokia eta irisgarria** izateko duten eskubidea bermatzea, bizimodu independenterako proiektuak diseinatzeko eta garatzeko premisa gisa.

- **Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategia** bultzatzea Euskadin, bai eta haren Ekintza Plana ere, asmo handiko neurri eta ekintzen bidez, desgaitasuna duten pertsonen, gainerakoen baldintza berberetan, ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak (informazioaren eta komunikazioaren sistemak eta teknologiak barne) eta jendearentzako edo erabilera publikorako beste zerbitzu eta instalazio batzuk eskuratzeko duten eskubidea bermatzeko.
- Desgaitasuna duten pertsonen askatasunez aukeratutako edo onartutako lan bat egiteko eskubidea bermatzea, lan-merkatu eta lan-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan, nagusiki enplegu babestua sustatzen dituzten egungo politika publikoak gaindituz.
- Desgaitasuna duten pertsonen **hezkuntza inklusiborako** duten eskubidea bermatzea, horretarako irisgarritasun unibertsaleko baldintzak eta behar diren arrazoizko egokitzapenak eskainiz, bai eta behar diren egokitzapen eta laguntza pertsonal eta teknikoak ere..

Eusko Jaurlaritzako sailei planteatutako erronkei ekiteko, lankidetzazko gobernantza-eredu batean oinarritutako politika publikoak behar dira, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea bermatzeko, haiek ordezkatzan dituzten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen bidez. Horretarako, elkarlanerako prest gaudela adierazi dugu, legegintzaldi hau Euskadin Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa erabat eta eraginkortasunez bermatzeko aukera emango duen aldi bihurtzeko.

MENDEKOTASUN- LEGEAREN ALDAKETAK

Elkarteanetik jakin genuen irekita zegoela mendekotasun-legeari egindako aldaketei buruz estatu mailan ekarpenak egiteko epea.

Aldaketak eta gure ikuspegia kontuan hartuta, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Bizimodu independentea eta bizi-proiektua kontzeptuen definizioak txertatzea, oso alderdi positibo gisa, gure bizitzari buruz, azken batean, gure proiektuari buruz, erabakitzeko dugun gaitasuna bermatzeko.
- Aukeratzeko askatasunaren, borondatearen, lehentasunen eta autodeterminazioaren printzipioa txertatzea, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea izateko ezinbesteko printzipioak baitira.

Aldaketa positibo horiek bizimodu independenterako eskubidea gauzatzeko egindako aurrerapena diren arren, Elkarteanen ustez, laguntza pertsonaleko zerbitzua zehatzago definitu behar da, desgaitasuna duten pertsonen behar guztiei erantzutearen garrantzia jaso dezan, gaur egun ez baitu hori barne hartzen eta kalte handia sortzen baitu desgaitasuna duten pertsonen askatasunez aukeraturako bizi-proiektua gauzatu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, aldaketa horien ezarpenaren jarraipena egingo dugu, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko eta bizimodu independenterako eskubidea sustatzeko, horretarako behar diren elementuak erabiliz.

OSASUN ITUNA EGITEKO PROZESUAN PARTE HARTZEA EXIJITZEN DUGU

Elkarteanetik jakin genuen Jaurilaritzak Osasun Ituna egiteari buruzko ekimen bat bultzatu zuela, osasun-sistema osoaren eraldaketan aurrera egiteko. Horretarako, lan-mahai bat eratu zen, baina prozesu horretan kolektibo garrantzitsu bat falta izan da, hau da, desgaitasun fisikoa duten pertsonen Euskadiko kolektiboa.

Diskriminazio hori ikusita, idazki bat bidali genion Osasun Sailari, prozesua gauzatzeko moduarekin ez geundela ados adierazteko eta sailari dagozkion eta desgaitasuna duten pertsonen bizitzan eragina duten beste gai batzuei heltzeko, baina ez genuen erantzunik jaso.

Urriaren 17an bilera bat egin genuen Eusko Legebiltzarreko Euzko Abertzaleak taldearekin, eta berriro aprobetxatu genuen gogorarazteko garrantzitsua dela Elkartean Osasun Ituna egiteko prozesuan sartzea, desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak erabat bermatzeko, osasuna eremu garrantzitsua baita. Legebiltzarreko taldeak konpromisoa hartu zuen Osasuneko sailburuari zuzenean helarazteko gure eskaera, baina ordutik ez dugu berririk izan.

Erantzunik izan ez duten saiakeren ondoren, lehendakariari idazki bat bidaltzea erabaki dugu, Elkartean Osasun Ituna egiteko prozesuan sartzeko behar diren erabakiak har ditzan eskatzeko. Horrela, desgaitasun fisikoa duten pertsonen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako eskubidea ("ahalik eta osasun mailarik handiena izatea, desgaitasun-arrazoiengatik diskriminaziorik jasanez gabe") erabat gauzatzeko behar diren politikak eta neurriak aztertzen eta garatzen zuzenean parte hartuko dutela bermatuko da.

DANTZA INKLUSIBOA



2025eko maiatzaren 11n, Dantzaren Nazioarteko Eguna zela-eta, “Gasteiz dantzan” ekitaldia egin zen Gasteizko plaza berrian. José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioak antolatutako ekitaldi honen helburua, dantza hizkuntza artistiko, unibertsal eta askotarikoa dela erakustea da. Bertan, **eginaren eginezek**, lehen aldiz parte hartzeko aukera izan zuen, kontserbatorioaren gonbidapenari esker; eta proposamen eszeniko eraldatzaile bat aurkeztu genuen.

Aurkeztu genuen koreografia, “Eginez dantzan” izenekoa, desgaitasuna duten eta desgaitasunik ez duten emakumeen taldeak interpretatu zuen, eta dantzari buruzko ezagutza zabala duen koreografo bat izan zuten buru. Haren zuzendari-tzak ekitatearekin, kulturarako sarbidearekin eta mugitzeko eta adierazteko modu guztien onarpenarekin eta balioarekin erabat konprometitutako begirada artistikoa eskaini zuen.

Emanaldian elementu estetikoak txertatu genituen, hala nola abanikoak eta hegalak, eta, horrela, parte hartzaile bakoitzaren mugimendu gaitasunetara egokitu zen, aberastasun bisuala eta sinbolismoa gehituta. Esperientzia honen bidez ahalduz kolektiboko gune bat sortu zen, adierazpen artistikoa dibertsitatean eta errespetuan oinarrituta bizi izateko aukera ematen zuen gune bat. Publikoak ezin hobeto hartu zuen interpretazioa; izan ere, berotasuna eta aintzatespena erakutsi zituen, eta balioa eman zion koreografian zegoen adierazpen-indarrari, sentimendutik artistikoki eta berdintasun-mezuari.

BIZIMODU INDEPENDENTEAREN EUROPAKO EGUNA



Joan den 2025eko maiatzaren 5ean, Bizimodu Independentearen Europako Eguna zela-eta, **eginaren eginezek** egun hori ospatu nahi izan zuen, Gasteizko Foru Jauregiaren aurrean elkarretaratze baterako deia eginez. Elkarretaratze horretan, erakundearen ordezkari gisa dibertsitate funtzionala duten pertsonak, konpromisoarekin bat egin nahi izan zuten herritarrekin batera, gure ahotsak entzunarazi genituen bizimodu autonomo eta duin baterako eskubidea aldarrikatzeko.

Ekitaldian azpimarratu genuen bizimodu independentea ezin dela prekaritatearekin defendatu. Aldarrikapenak honako hauek izan ziren: irisgarritasun unibertsala, hezkuntza inklusiborako sarbidea, merkatu arrunteko enplegurako sarbidea, laguntza-produktu eskuragarriak eskuratzeko eskubidea eta Arabako ESlaren osasun-sarearen bidez errehabilitazio-zerbitzu publikoa bermatzea. Gainera, desgaitasuna duten pertsonak kontratatzen dituzten enpresei benetako neurriak ematearen garrantzia nabarmendu genuen.

Illo beretik, azpimarratu nahi izan genuen laguntza pertsonala eskubide subjektibo gisa aitoritu behar dela, funtsezkoa baita aukeratzeko askatasuna, aukera-berdintasuna eta komunitate-bizitzan erabateko parte-hartzea bermatu ahal izateko.

Elkarretaratzea amaitzean, manifestua helarazi genien foru-departamentuetako ordezkariari, kolektiboaren konpromisoaren erakusgarri, hitz egiten jarraitzeko eta gizarte inklusiboagoa sustatzeko neurri zehatzak eskatzeko, eskubide osoko herritarrak garen aldetik. Hori guztia, **¡LA VIDA INDEPENDIENTE NUESTRO DERECHO! BIZIMODU INDEPENDIENTEAREN IZATEKO ESKUBIDEAREN ALDE!** lelopean. Kontsigna horrek, azken batean, gizarte inklusiboago eta bidezkoago baten aldeko apustua egiten dugunon erabakitasuna bateratzen du.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA

Irailaren 15era arte zabalik dago desgaitasuna duten pertsonentzako banakako laguntzen deialdi publikoa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearena, dibertsitate funtzionala duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Laguntza horiek laguntza-produktuekin, tratamendu espezializatuarekin, ibilgailuak edo etxea egokitzearekin eta inklusioa eta aukera-berdintasuna bultzatzen duten beste behar espezifiko batzuekin lotutako gastuak ordaintzeko dira. Hala ere, **eginaren eginez** elkartetik hausnarketa kritiko bat egin nahi dugu laguntza horien egiturazko urritasunari buruz, desgaitasun/dibertsitate funtzional batekin bizitzeak dakarren benetako gainkostuarekin alderatuta.

Desgaitasunak, sarritan, etengabeko gastu gehigarriak dakartza: laguntza-produktuak, sistema publikoak ordaintzen ez dituen tratamendu medikoak eta terapiak, ingurunearen egokitzapena eta garraioa, besteak beste. Gaur egungo

laguntza publikoek kostu horien zati txiki bat baino ez dute ordaintzen, eta pertsona asko zaurgarritasun ekonomikoko egoeran geratzen dira. Gainera, eskuratzeko irizpideek eta aurrekontu-mugek eskubide sozialen esparruan egon behar ez lukeen lehia sortzen dute eskatzaileen artean. Autonomia pertsonalaren babesa ezin da unean uneko aurrekontu-baliabideen araberrakoa izan; aitzitik, eskubide iraunkor eta behar bestekoa izan behar da.

Eginaren eginezetik dei egiten diogu foru-administrazioari finantzaketa-ereduak berrikus ditzan eta kolektiboaren beharrei justizia eta errealismo handiagoz erantzungo dien laguntza-sistema bat diseina dezan.

AUTONOMIARAKO ETA AHALDUNTZERAKO PRESTAKUNTZA



Azken hilabeteetan, gure Elkartek dibertsitate funtzionala duten pertsonen ongizate integrala sustatzeko funtsezko bi prestakuntza jarri ditu abian: **Estresari aurre egiteko eta Adimen Emozionalari buruzko Ikastaroa eta Sexualitatean Ahalduntzeko Ikastaroa.**

Lehen ikastaroak estresa identifikatzeko, ulertzeko eta kudeatzeko tresna praktikoak eskaini ditu, baita eguneroko bizitzan funtsezkoak diren trebetasun emozionalak garatzeko ere. Parte-hartze saioen eta erla-

xazio tekniken bidez, parte-hartzaileek kontzientzia emozional handiagoa eta osasun mentala eta bizi-kalitatea hobetzeko estrategiak eskuratu ahal izan dituzte.

Bestalde, sexualitateari buruzko ahalduntze-ikastaroak hezkuntza afektibo-sexuala landu du ikuspegi inklusiboa, errespetuzkoa eta taburik gabekoa oinarritzat hartuta. Desirarako eskubidea, gorputz-autoestimua, erabakiak hartzea eta abusuen prebentzioa landu ditu, elkarriketarako eta norbere iritzia adierazteko gune seguruan.

Bi ekimenek harrera bikaina izan dute, eta horrek ikaskuntzarako eta garapen pertsonalerako espazioak eskaintzen jarraitzearen garrantzia berresten du. Eskerrak ematen dizkiegu parte-hartzaile guztiei beren inplikazioagatik eta profesional prestatzaileei beren lanagatik eta dedikazioagatik.

GUTXIENKO PENTSIOAK LANBIDEARTEKO GUTXIENKO SOLDATAREKIN PAREKATZEKO LEGEGINTZA-EKIMENA

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideekin eta justizia sozialarekin dugun konpromisoaren esparruan, gure Elkartek aktiboki parte hartu du **Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak sustatutako sinadura bilketan**, eta hari atxikita gaude plataforma gisa.

Herritarren ekimen honen helburua **pentsio publiko duinak, behar bestekoak eta bermatuak** eskatzea izan da, pertsona guztientzako duintasunezko bizitza ziurtatuko

dutenak, batez ere, desgaitasun-egoeragatik oztopo ekonomiko eta sozial handiagoak jasan behar ditugunontzat.

Aurtengo lehen hiruhilekoan, elkartearen egoitza sinadurak biltzeko topagunea izan da. Bazkideek, senideek, lagunek eta bizilagunek kanpainan parte hartu dute, sinadura emanez.

Ekintza honekin, gure ahotsak bat egin du babes-sistema indartsu, publiko eta justu bat eskatzen duten Euskadiko milaka pertsonen ahotsarekin. Bildutako sinadurak Euskadi osoan bildutakoei gehitu zaizkie. Maiatzaren 15ean, gutxieneko pentsioak lanbidearteko gutxieneko soldatarekin parekatzea eskatzen duen Herri Ekimen Legegilea babesten duten 145.142 sinadurak aurkeztu ziren Eusko Legebiltzarreko erregistroan, borrokarako eta itxaropenerako ekintza kolektiboari esker.

Elkartetik biziki eskertzen dugu gure komunitatearen parte-hartze aktiboa eta konpromisoa. Beste mugimendu sozial batzuekin batera lanean jarraituko dugu, pertsona guztientzako etorkizun bidezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko.

MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAT ERRESERBATUTAKO ETXEBIZITZAK

Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eskaintza jaso dugu (prezio tasatuko etxebizitzak) Zabalgan, eta mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako bi etxebizitza daude bertan, biak garaje eta trasteleku banarekin.

Informazio gehiago gure webgunean: www.eginez.org eta Alzania Gestión de Inmuebles SL enpresan, 948 81 50 66 telefonoan.

KAMILOTARREN LOKALAREN LAGAPENA



Fekoorreko zuzendari Javier Gilek eta Espainiako Kamilotarren Ordenako nagusi Jose Carlos Bermejok gure erakundeak Sancho Azpeitian dituen instalazioen erabilera lagatzeko hitzarmena berritu dute. Lokal horretan prestakuntza, aisialdi eta denbora libreko tailerrak egiten dira.

Orain arte, hitzarmena urtero sinatzen zen, baina oraingoan 10 urtez luzatuko da. Lokal horietan sortu zen Feko; izan ere, 1979an, Frater, Socorria eta Guraso Elkarteak etorri ziren, eta baita Alcer eta Aheva erakundeak ere.

BIZKAIAN GARRAIOAREN IRISGARritasunean HOBEKUNTzak ESKATZEN DITUgu



Joan den apirilean, eskutitz bidez eskatu genion Sonia Pérez Garraioetako foru-diputatuari desgaitasuna duten pertsonak laguntzen dituzten pertsonak garraio publikoan ordaintzetik salbuetsitako kolektibo onuradunen barnean sartzeko.

Gaur egun, doakotasun horrek ez ditu barne hartzen mugikortasun urria, ikusmen baxua edo ikusmen-degaitasun larria duten pertsonen laguntzaileak, eta, beraz, kolektibo onuradunen barnean sartzea eskatzen dugu. Era berean, Barik txartela arautzen duen ordenantzaren 5. artikulua aldatzea proposatu genion, mugikortasun urria, mendekotasuna edo ikusmen baxua duenak Gizatrans txartela eskuratu ahal izan dezan, aitortutako beste profil batzuek bezala.

OSATEK-EN FROGA DIAGNOSTIKOAK EGITEKO BALIABIDE EGOKIAK



Bilboko Osatek sozietateari gure kezka helarazi diogu, Osakidetzan irudi bidezko diagnostiko-zerbitzuak erabili behar dituzten desgaitasuna duten pertsonen osasun-arreta segurua, irisgarria eta duintasunarekiko errespetuzkoa bermatzeko baldintza egokirik ez dagoelako.

Urtarrilean gertatutako egoera honen ondorioz aurkeztu zen eskaera: desgaitasuna eta mendekotasun maila handia duen pertsona bat airean eraman zuten zenbait zeladorek ohatila batean etzan ahal izateko, gurpil-aulki elektrikoarekin erresonantzia magnetikoko gelan sartzeari debekatuta zegoelako. Espazio horien muga teknikoak ulertzen baditugu ere, uste dugu jardunbide hori onartezina dela eta arriskua dakarrela bai artatutako pertsonarentzat, bai osasun-langileentzat.

Horregatik, zerbitzu horiei behar diren laguntzak ematea eskatzen dugu, hala nola ingurune magnetikoekin bateragarriak diren materialekin egindako ohatilak eta gurpil-aulkiak, garabi mugikorak eta transferentzia-sistema seguruak. Gainera, irtenbideak bilatzen laguntzeko prest gaude.

2024KO JARDUERA MEMORIA



Fekoorrek 2.200 pertsonari baino gehiagori (1.120 emakume eta 1.098 gizon) zuzeneko laguntza emanez eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak, parte-hartzea eta ongizatea erdigunean jartzen dituen eredu komunitario bat sendotuz itxi zuen 2024ko ekitaldia.

Eragin politikoa bultzatu dugu, Bizkaia bidezkoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa eskatzeko, erakunde publikoetan parte hartuz, kaleko aldarrikapen-ekintzak bultzatuz eta materialak eginez, hala nola MUPentzat aparkatzeko txartela duten herritarrentzako aparkatzeko gidaliburu erabilgarria. Kudeatzen ditugun bi foru-zerbitzuetatik, Etxegokiren laguntzadun apartamentuek mendekotasun handia duten 73 pertsonari etxe bat eskaini zieten, eta Arbolarte eguneko arreta-zentroak 62 pertsona artatu zituen. Gainera, sei programa garatu genituen, eta horien artean nabarmentzekoak dira Bizinde mentoretza soziala, desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiei laguntza psikologikoa ematea, eta lan-poltsa aktibo bat. Lan-poltsa horri esker, 90 kontratazio burutu genituen, horietako 19 mugagabeak, 750 pertsonari arreta eman eta 162 enpresarekin harremanetan jarri ondoren.

Era berean, aholkularitza juridikoa, gizarte-laneko arreta eta aisialdirako, kirolerako eta prestakuntzarako aukerak eskaini genizkien 400 pertsona baino gehiagori. Lan hori guztia 97 pertsonako talde profesional bati esker ahal izan dugu.

ENPLEGU DUINA ETA ETXEBIZITZA IRISGARRIA ESKA- TZEN DITUGU



Espainian Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBERen Konbentzioa indarrean jarri zeneko 17. urteurrena dela-eta, Fekoorren premiazko neurri eraginkor-rrak eskatzen ditugu desgaitasun fisiko eta/edo organikoa duten pertsona guztiei bizitza duina, askea eta autonomia bermatzeko.

Nazioarteko itun horrek oinarritzko eskubideak aitortzen ditu, hala nola enplegua eskuratzeko eskubidea edo modu independentean bizitze-ko aukera. Hala ere, gure langabezia-tasak ia bikoiztu egiten du gainerakoena; gainera, EAEko 10.000 familiak baino gehiagok etxebizitza aldatu behar dute irisgarritasun-arazoak dituztelako, baina ez dute etxebizitza egokitu-rik aurkitzen.

Horregatik, ingurune arrunt, ireki, inklusibo eta irisgarrietan lan egin ahal izateko benetako aukerak bermatzea eskatzen dugu, bai eta babestutako etxebizitza publikoen parkearen barruan mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako etxebizitzaren kopurua handitzea ere, besteak beste.

COCEMFEK MAMO- GRAFO INKLUSI- BOAK EKIMENA SARITU DU



Cocemfek 2025eko Gizarte Inklusiboaren Saria eman dio, “espazio soziosanitarioa” kategorian, **Mamografo Inklusiboak** ekimenari, Osakidetza Fekoorren laguntzarekin bultzatuta.

Saria joan den ekainaren 5ean banatu zen, Madril en egindako gala batean. **María Jesús Hernández**ek jaso zuen saria, Galdakaoko Unibertsitate Ospitaleko Bularreko Minbizia Goiz Detektatzeko Programako izpien teknika-ri eta Erradiologia, Erradioterapia eta Medikuntza Nuklearreko Teknikarien Espainiako Elkarte presidentek.

Fekoorretik hautagaitza proposatu genuen, desgaitasuna duten emakumeek bularreko minbizia goiz detektatzeko probak errazago egiteko aukera izan dezaten. Haren bultzadari esker, mugikortasun-beharrei buruzko informazioa emateko aukera barne hartu zen mamografia bat egiteko hitzordua eskatzean.



GIPUZKOA

ELKARBIDEAN 2025 PROGRAMA



elkartuk, aurten ere, Gipuzkoako Foru Al-
dundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako
Departamentuarekin lankidetzan, Elkarbi-
dean programa antolatu du, desgaitasuna
duten pertsonen aisialdirako eskubidea
bermatzeko.

Horren bidez, hainbat bidaia-txanda eskain-
tzen zaizkie desgaitasun fisiko, organiko edo
sentsoriala duten pertsonen; izan ere, progra-
ma horrengatik ez balitz, ezin izango lukete
berdintasun-baldintzetan bidaiatu.

Elkarbidean 2025 programak honako helmu-
ga hauek eskaintzen ditu:

FUENGIROLA, ekainaren 3tik 10era
SALOU 1, uztailaren 5etik 19ra
LANZAROTE, uztailaren 28tik abuztuaren 6ra
SALOU 2, abuztuaren 16tik 26ra
PEÑISCOLA, irailaren 20tik urriaren 4ra

2024an ere 5 txanda antolatu ziren, eta des-
gaitasuna duten 71 pertsonak, 60 laguntzaile
propiok eta elkartuk jarritako 18 laguntzailek
parte hartu zuten guztira. Era berean, % 88,9k
esperientzia oso ontzat edo ontzat jo zuten.

DESGAITASUN FISI- KOA DUTEN EMA- KUMEEN AURKAKO GENERO-INDARKE- RIARI BURUZKO TAI- LERRAK



laz aurkeztutako ekimenari jarraipena ema-
nez, **elkartuk** sentsibilizazio- eta prebentzio-
-tailerrak antolatu ditu desgaitasun fisikoa
duten emakumeen aurkako genero-indarke-
riari buruz.

Tailerren helburua da desgaitasuna duten ema-
kumeek jasaten duten indarkeria matxista ikusa-
raztea eta lantzea; izan ere, talde hori, askotan,
ez dute aintzat hartzen edo ez dute biktima gisa
onartzen, aurreiritzi sozialen ondorioz. Erronka
nagusietako bat da emakume horietako askok ez
dutela lortzen beren sufrimendua indarkeria gisa
identifikatzea, erratuta, desgaitasunarekin lotzen
baitute sufrimendu hori. Gainera, gizarteak beren
zaugarritasuna ukatzeko joera du, eta horrek iso-
latuta eta etengabe arriskuan uzten ditu.

Oraingo honetan, tailerrak Tolosako eta Astigarra-
gako emakumeen etxeetan egin dira, eta topake-
tara bertaraturakoen artean lankidetzak eta lagun-
tza-sareak sortzea eta parte-hartzea bultzatu dira.
Horrela, indarkeria-egoerak bizi dituzten edo bizi
izan dituzten desgaitasuna duten emakumeen
ahalduntzea sustatzen da, beren buruak biktima-
tzat aitortzen eta indarkeriarik gabe bizitzen lagun-
duz. Halaber, haien parte-hartze aktiboa eta haien

eskubideen aitortpena sustatzen dira. Era berean, profesionalak eta, oro har, gizartea sentsibilizatu nahi dira desgaitasuna duten emakumeen errealitateari buruz, ingurune inklusiboagoa eta errespetuzkoagoa sustatzeko.

“GAINDITU GABEKO ERRONKAK DESGAITASUNEAN” JARDUNALDIA



Joan den maiatzaren 9an, San Telmo museoan, “Gaingitu gabeko erronkak desgaitasunean” jardunaldia egin zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta.

Ekitaldiaren helburua desgaitasunaren arloko politiketan dauden erronka nagusiak aztertzea izan zen, ia 20 urte igaro baitira Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa onartu zenetik.

elkartuk ponentzia baten bidez parte hartu zuen. Ponentzia horretan, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko eragin sozial eta politikorako tresna gisa konbentzioak duen balioa azpimarratu genuen. Horrela, konbentzioa zabaltzeko federazioa garatzen ari den ekintzak partekatu genituen (legeak bultzatzea, Ohar Orokorren gida didaktikoak, ikerketa-proiektuak, parte hartzeko prozesuak, etab.), baita gehiago ezagutarazteko dauden erronkak ere, eta, bereziki, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren eraginkortasun osorako dauden erronkak.

ERABAKIZ PROIEKTUA, BIZIMODU INDEPENDENTEA PROBATUZ



Urtebete bete da erabakiz proiektua abian jarri zenetik, **elkartu** eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren arteko lankidetzaren bidez.

Horregatik, joan den martxoaren 6an, Eider Mendozak, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusiak, eta Maite Peñak, Zainketa eta Gizarte Politiketako diputatuak, etxebizitza bisitatu zuten, eta bertatik bertara ezagutu zituzten Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren aitortutako eskubidea bultzatzea helburu duen Gipuzkoako proiektuaren printzipioak, helburuak eta garapena.

Proiektua etxebizitza bat da, eta bertan, desgaitasuna duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, gaur egun familiaren laguntza jasotzen badute, bizimodu independentea aldi batez probatu ahal izango dute. Horretarako, etxebizitza egokituaz eta beharrezko laguntza tekniko eta dispositibo teknikoek gain, eguneroko bizitzako oinarritzako jarduerak eta parte-hartze soziala bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak egiteko ezinbesteko laguntza pertsonalak dituzte.

Desgaitasun fisikoa duen pertsona bazara eta mendekotasun-egoera bat aitortuta baduzu, eta gaur egun familiaren laguntza ja-

sotzen baduzu, baina etorkizunean bizimodu independenteko proiektu bat garatzeko asmoa baduzu, **elkarturekin** harremanetan jar zaitezke proiektuari buruzko xehetasun gehiago jakiteko edo parte hartzea proposatzeko.

GIPUZKOAKO KIROL-INSTALAZIOAK

Azken hilabeteetan, Gipuzkoako hainbat udalerrik onartu dituzte kirol-instalazioak eta -zerbitzuak erregulatzeko arauak.

Hasieran onartutako testuak aztertu ondoren, hainbat alegazio aurkeztu ditu **elkartuk**, desgaitasuna duten pertsonen beren udalerriko kirol-instalazioak eta -jarduerak berdintasunez erabili ahal izango dituztela bermatzeko.

Bereziki, arau erregulatzailaetan honako alderdi hauek bermatzeko beharra planteatu da:

- Kirol-instalazio eta -zerbitzuen irisgarritasun unibertsaleko baldintzak betetzea.
- Arrazoizko egokitzapenak egitea, desgaitasuna duten pertsonen hala eskatzen dutenean.
- Jarduera instrumentaletarako behar diren laguntzak ematea (aldagela, arropa aldatzea, lekualdaketak, etab.).
- Desgaitasuna duten pertsonen laguntzaileei instalazio eta zerbitzuetarako sarbidea bermatzea behar dituzten laguntzak emateko, dagozkien tasak ordaindu beharrik gabe.

Udalerrri batzuek barne hartu dituzte aurkeztutako ekarpenak, eta horrek, zalantzarik gabe, desgaitasuna duten pertsonen kirol-jardunean aurrera egiten lagunduko du,

osasuna bermatzeko eta komunitatearen parte-hartzea sustatzeko bitartekoa baita.

OGASUNAK ZENBAIT ZERGA IKUSKATZEKO EGINDAKO JARDUKETAK

elkartuk Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren hainbat ikuskapen-jarduketaren berri izan du, matrikulazio-zergan desgaitasuna duten pertsonen aplikatutako hobari edo salbuespenei buruz, eta mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak erosterakoan BEZ murriztua aplikatzeari buruz.

Zerga-jarduketaren arrazoia baldintza hau ez betetzean oinarritzen da: ibilgailua desgaitasuna duen pertsonak bakarrik erabiltzea, dagozkion arau erregulatzailaiek ezartzen duten bezala.

Egoera hori ikusita, **elkartuk** idatzi bat bidali dio Ogasun eta Finantza Sailari, aplikatzen den “desgaitasuna duen pertsonak bakarrik erabiltzea” kontzeptuaren interpretazioarekin kezkatuta dagoela adieraziz. Izan ere, interpretazio horrek desgaitasuna duten pertsonentzako ekintza positiboko neurri baten oinarria indargabetzen du, ibilgailuak erosteko fiskalitatearen esparruan, eta hein batean behintzat, desgaitasuna eta mugikortasun urria duten pertsonentzat beren beharretara egokitutako ibilgailu bat erosteak dakarren kostu ekonomiko handia arintzea zuen helburu.

Egoera horretan aurkitu bazara, horren berri ematera animatzen zaitugu, abusuzkotzat jo daitezkeen eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak urratzen dituzten administrazio-jarduketak salatzen jarraitzeko.